

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezero berriak erakartzeko eta horiek mantendu eta hazteko estrategia arrakastatsua diseinatzeko, oinarri sendoak ezarri behar dira hainbat alorretan. Hauek erakartzeko, sare sozialak erabiliko ditugu, horien artean; Instagram, Tik Tok...

Bezero berriak erakartzeko hainbat gauza egingo ditugu. Alde batetik, pertsona ezezagunei publizitate kanpaina ezberdinak egitea eskatuko diegu eta bestalde, gure proiektuaren inguruko kontua sortuko dugu honi ikusgarritasuna emateko. Horrez gain, kaleetan zehar, kartelak ezarri egingo dugu kaleko marketina.

Bezeroak mantentzeko eta hazteko beste hainbeste gauza egingo ditugu. Horien artean, kalitate gorena bermatzea eta zerbitzu bikaina eskeintzea izango dira garrantzitsuenak. Hala ere, horretaz gain, tarteka galdetegi batzuk bidaliko ditugu WhatsApp-eko kontu publiko batera eta bertan egin ditzakegun hobekuntzak jartzeko eskatuko diegu bezeroei, horrela gure zerbitzuak hobetzea lortuz.

Laburbilduz, bezero berriak erakartzeko marketing eta komunikazio estrategiak bideratu beharko ditugu ikusgarritasuna emateko eta interesa pizteko. Mantentzeko berriz, bezeroengan arreta jarri beharko dugu zerbitzu bikainean eta berrikuntzan. Izan ere, gauza guztien aurretik garrantzitsua da bezero eta enpresaren arteko komunikazio ona mantentzea, horrela lortzen baita enpresa goran mantentzea, eta honen bitartez, gure proiektuak etengabe hazten jarraituko duela uste dugu.